



BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal hau hiru zatitan banatuko dugu. Lehenik eta behin gure bezeroei asetuko diegun beharra azpimarratuko dugu, ondoren, gure proiektu berritzailearen izaera zertan datzan zehaztuko dugu, eta amaitzeko, gure ideia zenbait funtsezko ezaugarri aipatuko ditugu.

Lehenengo puntuarekin hasiz, gu ingurumenari ematen ari diren inpaktu ezberdinen ondorioak aztertzen aritu gara, horien artean berotze globala. Mundu mailan ematen ari den gertakari honek gure ingurumenari kalteak dakartza, eta horren eragile nagusi dira abeltzaintzatik eratorritako gasak (bai animalia zein makinariatik), hauen produktiorako erabiltzen den ur kantitatearekin batera. Honen aurrean, abeltzaintza honetatik eratorritako produktuak ordezkatu nahi ditugu gure ideia berritzailearekin, intsektuez egindako jogurt eta ogiekin hain zuzen ere. Hasiera batean bortitza dirudien arren, bitxo hauek mundu osoan kontsumitzen diren elikagaiak dira, bai Indian, Tahilandian eta Afrikako zenbait herrialdeetan. Hauek, gure inguruko abeltzaintzan erabiltzen diren animaliek baino isurketa kontaminatsua gutxiago botatzen dituzte, leku gutxi okupatzearekin batera.

Horrez gain, gure produktuetan erabiliko ditugun bitxoek gure osasunerako beharrezkoak diren zenbait behar asetuko dizkigute. Honetarako, kilker eta inurriez baliatuko gara. Lehen hauek este-bakterio onuragarrien hazkundera sustatu eta gorputzeko hantura murrizten laguntzeaz gain, zuntzak dituzte, kitina kasu. Bestalde, inurriak proteina eta burdin iturri nagusi gisa erabiliko ditugu. Zomorro hauek gainera, duten balio antioxidatzaile handia dela medio, zenbait gaixotasun ekiditea ahalbidetzen dio gizakiari, horien artean, minbizia edo gaixotasun kardiobaskularrak.

Produktu berritzailearen izaera ideia beretik dator. Nahiz eta ekialdeko zenbait herrialdeetan jada produktu jangarri izan, gure enpresa europar txertatzea dugu helburu. Honela, beste herrialde batzuetan hain ondo funtzionatzen duen elikadura mota hau gure herritarrei eskainiz.

Gure produktua egiterako garaian haur, gazte eta kirolarrietan pentsatu dugugehien bat. Honez gain, gure helburu nagusia ekoiztutako produktuak pertsona ororentzako eskuragarri izatea da. Honen harira finkatu ditugu prezioak. Bestalde, segurtasun aldetik, kalitatezko lehengaiak erabiliko ditugu eta higiene sistema handi bat bermatuko da gure produktuak garatzerako garaian, honela gure erosleen osasuna bermatuz.



Hemen daude gure produktuaren zenbait funtsezko ezaugarri:

	Jogurtak	Ogia
Prezioa	0,9€/unitateko	3,15€/unitateko
Pisua	125 gramo	250 gramo
Neurriak	Zabalera→51cm Altuera→90mm	